

# GURE IRAKURGELA

## HAURRA BERE IDENTITATEAREN BILA

**Manu Lopez Gaseni**

**X**X. mendeko haur literaturako idazle klasikoetatik dugu Gianni Rodari gaur egun. Izan ere, ekarpen benetan berritzaile eta subertsiboak egin zituen literatura zein irakaskuntzaren eremuetan. “Errealismo fantastikoa” deitura ere harekin erlazionatzen da zuzenean: irakaskuntzaren mundua autoritarismoaren atzaparretan zegoen garaian, surrealismoan zein herri-literaturan oinarrituta, errealitya



**Liburua:** “Nor naiz ni?”  
**Egilea:** Gianni Rodari.  
**Itzultzailea:** Inaki Zubeldia.  
**Argitaletxea:** Ibaizabal, 2006.

tea fantasia-ukituez zipriztintzeko egin zituen proposamen teoriko-praktikoak direla medio. Hor dira, esaterako, amaierarik gabeko “Jolas egiteko ipuinak”, irakurle bakoitzari bere gustuko bukaera asmatzera gonbidatuz idatziak; edo ipuin laburrak lantzeko zaletasuna, “Telefonozko ipuinak” izenekoaren bitartez. Oso ezaguna da, gainera, idazlearen ekarpen teorikoak biltzen dituen “Fantasiaren gramatika”.

Oraingoan Ibaizabal argitaletxeak berreskuratu duen liburua egilea hil ondoren ar-

gitaratu zen italieraz, 1987an, “fantasiako lehen jolasak” azpittituluarekin. “Nor naiz ni?” izeneko ipuintxo bost urtetik aurrerako haurrentzat idatzitako liburu ilustratua da. Bertan, idazle italiarrak identitatearen bila dabilen ume baten pentsamenduaren garapena kontatzen digu.

Literatura tradizionaleko jolas ezagun baten bidetik, metaketaren bidezko kateatzea lantzen da: umeak bere inguruan jokatzeko dituen rolen berri jasotzen du, eta galdera bakoitzaren ondoren

elementu berri bat ezartzen zaio identitatearen zerrendari. Hala, zer naiz ni? galderaren erantzunari semea-haurra-neba-biloba-lehengusua-ikaslea-oinezkoa-bidalaria-ikusentzulea-txirrindularia-bezeroa-laguna eta askoz rol gehiago ere gehitzen zaizkio protagonistari.

Toto umearen galdera kezkatien ondoan, collage-a eta era askotako testurak erabiliz Miguel Tanco irudigileak egindako marrazki koloretsu iradokitzaileek osotasun biribil eta erakargarria itxuratu dute.